

Banarte antzerki taldeko kideak, *¡Ese no!* komedia antzeztzen. BANARTE

Antzerki emanaldi solidarioa, AMSren alde

'¡Ese no!' antzezlan komikoa antzeztuko dute Banarte antzerki taldeko kideek urriaren 5ean Amaia antzokian. Sarreraren prezioa 10 euro da. Bildutako dirua AMS Mundu Solidarioa elkartearendako izango da. 25 urte beteko ditu aurten

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE Banarte antzerki taldeko kidea da AMS Mundu Solidarioa gobernuz kanpoko elkartearen diruzaina, eta taldeko aktoreengana jo zuen antzerki emanaldi solidario bat antolatzeko proposamenarekin. Bi proiektu bultzatzen ditu AMSk, biak Nikaraguan, eta 2024. urtea ez zen oso ona izan proiektu horietarako diru-

laguntzak lortzeko. "Elkartean denok laguntzen dugu diru-bilketan, eta diruzainari bururatu zitzaion antzerki emanaldi solidario bat egitea. Hala, Banarte taldeko lagunei proposatu zien *¡Ese no!* antzezlanaren Arrasaten egitea diru-bilketan laguntzeko", azaldu du AMSko kide Isabel Medinak. "Banarteko kideei ideia ona iruditu zitzaion

eta guretzat ekarpen ekonomikoa handia da. Urriaren 5ean Amaia antzokian egingo dute emanaldia, 19:30ean", gehitu du.

Sarrerak salgai daude, udal webgunean, 10 euroko prezioan. Bildutako dirua AMS elkarteak Nikaraguako Diriamba herrian martxan dituen bi proiektuetako batera bideratuko da. Programa hori *Guk ere ahal dugu*

du izena. "Tresnak ematen dizkiegu desgaitasuna duten 50 pertsonari eta haien senideei. Inklusioa lantzen duten langileak ditugu baliabide-zentroan eta tailerrak eta ekintzailetza programak bultzatzen dituzte".

25 urteko ibilbidea

AMS Mundu Solidarioak mende laurdeneko ibilbidea egin du dagoeneko; izan ere, aurten beteko dira 25 sortu zela. "Elkartasunaren, lankidetzaren eta hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu, gizartearen alderia, aniztasunak aberastutako gizarte lortzeko. Urteek eskarmentua ematen dute eta denbora honetan hainbat aldaketa egin ditugu gure proiektuetan. Ahalegina egin dugu programetan parte hartzen duten pertsonen parte-hartze handiagoa izan dezaten. Ikasketak egiteko beka programa bat dugu martxan, non 30 ikasle dauden. Horrekin batera, aurretik aipatutako programa dugu desgaitasuna duten pertsonendako. Horiek dira gure bi proiektuak".

Gaur-gaurkoz, zortzi boluntario dihardute AMSn eta 90 bat bazkide ditu elkarteak. Medinak gogoan ditu hasierako urte haiek: "Diriamba herrian lan egindako lagun-talde batek sortu zuen. Bertan hasitako bi proiektuekin jarraitzea erabaki zuten. Helburua zen ikasle gazteei beka ematea, garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako tresnak eskainiz. Era berean, asmo handiagoko proiektu bati ekin zioten: desgaitasunaren bat zuten pertsonen zuzendutako gune bat eraikitzea, zeinek autonomia eta hezkuntza hobetzeko tailerrak izango zituen oinarri, betiere inklusioa helburu eta komunitatearen sentsibilizazioa landuz".

Antzezlan komikoa

Abadiñoko Banarte antzerki taldearen laguntzarekin, emanaldia solidarioa egingo dute urriaren 5ean Amaian. Proiektuen finantzaketan laguntzeko bultzada jasotzeko itxaropenarekin daude AMS Mundu Solidarioa elkartearen. "Antzezlan dinamikoa hau ikustera animatzen dugu. Domeka arratsalde atsegin igaroko dugu eta sarrerekin batutako dirua Diriamba joango da", nabarmendu du Medinak.

Alexander Patelliere eta Matthieu Delaporte frantziarren *Le Prénom* lanean oinarritutako obra da *¡Ese no!* Rafa Herceek antzerkira egokitua eta Sonia Villamorrek zuzendua, obran lagunarteko afari bat irudikatzen da. Bikote bat lehenengo haurrek jaiotzeko zain dago eta afaltzera etorritako lagunei joko gisa proposatzen diete umeari jarririko dioten izena asmatzeko. Ika-mika soka luzea ekarriko du jokoak; izan ere, askotariko egoeretara eramango ditu protagonistak.

¡Ese no! giza harremanei buruzko komedia da. "Bertan, pertsonaiek salto egiten dute eguneroko maskara atsegin horietatik gizabanako bakoitzak ez kutan duen barne errealitate gordineran. Adiskidetasunari, hipokrisiari eta zitalkeriari buruzko komedia hurbil eta zuzena da, eta askotariko gaiak lantzen dira: maitasuna, maitamina, denbora eta familia", azaldu dute AMS elkarteek eta Banarte antzerki taldekoek.

GIZA HARREMANEI BURUZKOA DA, ETA TONU UMORETSUAN GAI ASKO LANTZEN DITU ANTZEZLANAK

Gaurtik domekara bitartean, San Migel jaiek Garagartzan

Tradizioari jarraituz, buzkantza izango da protagonista egubakoitzean eta Buzkantza Rock jaialdiak hamaikagarren aldia izango du. Aurten, Bixentak, Suggar eta Hankaz Gora taldeek joko dute. Hain zuzen ere, jaiek ikurrinaren igoerarekin hasiko dira, 19:00etan. Ondoren etorriko dira buzkantz-jana (19:30), Laminaren etorrera (23:00) eta

Buzkantza Rock jaialdia (23:30). Zapatuan, umeendako puzgarriekin ekingo diote egitarauri, 12:00etan. Iragarrita daude herri-kirolen erakustaldia (12:30), auzo-paella (15:00), bingoa zein irrintzi txapelketa (17:00) eta Garazi eta Amaiurren kontzertu akustikoa (20:00).

Domekan, meza (12:00), euskal dantzak (12:30), auzo-luntxa (13:00) eta jaien bukaera (15:00) egingo dituzte. Jaiek iraun bitartean, Arantxa Juaristiren akuarelak egongo dira ikusgai Patxixienien.

Mara San Joseren aldeko motor irteera, bihar, zapatua

Lapurdikoa Euskal Herriko Seimeak elkarteak bost kide arrasatear ditu, eta egun osoko egitaraua antolatuko du. Irteerarako izen-ematea (09:30) Arizmendiari plaza izango da. Besteak beste, irteera (11:15) eta bazkaria (14:00) iragarri dituzte. Diru-bilketa Battenen gaixotasuna duen Mara San Joserendako izango da.

OHARRAK

Pakito Arriarani omenaldia domekan

Haren hilketaren 41. urteurrena gogoratzeko, Pakito Arriaranen omenezko ekitaldia iragarri du Askapenak. Monterron parkeko oroitarran izango da, 12:00etan.

1951ean jaiotakoen kintada urriaren 18an

Musakolako elizan elkartuko dira, 10:45ean. Informazio gehiagorako, deitu: 639 90 22 01 (Ana Mari Eraña).

1958an jaiotakoen kintada azaroaren 14an

Zalduspe autobus geltokian elkartuko dira 11:20an eta erdiguneko autobus geltokian 11:30ean. Izena emateko 80 euro ingresatu behar dira: ES91 3035 0001 59 0011144438.